



Esp.-kodea: 2021SAGO0019

d) Kirol elkarteei bideratutako dirulaguntzaren behin-behineko laguntza onartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, Kirol Batzordeburuaren proposamena ikusita ondoko erabakia hartu du:

“Kirol Batzordeburuak Tokiko Gobernu Batzordeari proposatzen dio:

LEHENA.- 2020/21 denboraldirako Arrasateko kirol taldeen ohiko eta ez ohiko jardueretarako behin-behineko diru laguntzak onartzea jarraian zehazten diren taldeei:

BEHIN BEHINEKO DIRU LAGUNTZA 2021	GUZTIRA	60%	40%
1. AIRE DEBAGOIENA "AMILLENA"	2.802,54 €	1.681,52 €	1.121,02 €
2. ARIZMENDI	6.000,00 €	3.600,00 €	2.400,00 €
3. DESOREKA JUDO	11.492,35 €	6.895,41 €	4.596,94 €
4. ATLETISMOA	3.615,00 €	2.169,00 €	1.446,00 €
5.AKE	1.800,00 €	1.080,00 €	720,00 €
6. BESAIDE	11.500,00 €	6.900,00 €	4.600,00 €
7. DEBAGOIENA ZIKLOTURISMOA	1.500,00 €	900,00 €	600,00 €
8.ESKUBALOIA	9.900,00 €	5.940,00 €	3.960,00 €
9. FUTBOLA "MONDRA"	10.750,00 €	6.450,00 €	4.300,00 €
10. GIMNASIA ERRITMIKOA "DRAGOI"	5.000,00 €	3.000,00 €	2.000,00 €
11. PILOTA ARRASATE	3.570,08 €	2.142,05 €	1.428,03 €
12. RUGBY	9.450,00 €	5.670,00 €	3.780,00 €
13.SASKIBALOIA OINTXE	16.579,03 €	9.947,42 €	6.631,61 €
14. TXIRRINDULARITZA DORLETAKO AMA	3.500,00 €	2.100,00 €	1.400,00 €
15. XAKE "SAN ANDRES"	2.541,00 €	1.524,60 €	1.016,40 €
	100.000,00 €	60.000,00 €	40.000,00 €

TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2021/07/22

Kodea	O21/00234	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/uzt./21	CUDO	000.0055.AAAAM23B.2.wTdC
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM23B2.wTdC		

Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu





Esp.-kodea: 2021SAGO0019

BIGARRENA:-Aurreko puntuan aipatutako taldeei onartutako laguntzaren %60a ordaintzea.

HIRUGARRENA: AKE kirol elkarteak maiatzaren 3an aurkeztu du diru laguntza eskaera. 2021eko martxoaren 31n diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Bertan, Kirol Sailari dagokion 8.eranskinean, 4.puntuan, eskaerak aurkezteko epea adieraztean, diru laguntza eskaerak 30 egun balioduneko epean aurkeztu behar direla zehazten da, eskaera epea maiatzaren 13an bukatuz. Baina iragarkia akatsduna zen, gainontzeko diru laguntzetan bezala hilabeteko epea eman nahi baitzen eskaerak aurkezteko. Hau dela eta zuzenketa apirilaren 28an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hau da, zuzenketa eragindako epea baino 2 egun arinago. Hau dela eta, eta nahiz eta teknikoki epez kanpo egon, akatsa administrazioarena izanda, horrek ezin du izan eskatzaileengan eragin kaltegarririk eta segurtasun juridikoa bermatze aldera uztailaren 20an egindako Kirol Batzordeak erabaki du eskaera kontutan hartzea.

LAUGARRENA: Laguntza justifikatzeko azken eguna ondorengoa dela gogoraraztea:

- Iraila-ekaina bitarteko denboraldian jarduten duten elkarteek: 2021ko urriaren 31.
- Urte naturaleko denboraldian jarduten duten elkarteek: 2022ko urtarrilaren 15a.

BOSTGARRENA: Gogoraraztea ere, deialdiaren oinarri-arau orokorretako 23.2 artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu behar dela laguntza zuritzeko:

- a) Kirol memoria.
- b) Izandako diru sarreraren eta gastuen balantze orokorra.
- c) Jarduerak sortutako gastuaren frogagiriak, soilik gastu konputagarrien kasuan. Honako hauek frogagiri gisa onartzen dira:

c.1 Jarduerari lotutako gastuen jatorrizko fakturak edo horien kopiak. Fakturretan, datu hauek agertu beharko dira:

- ♣ Klub, entitate edo elkartearen izena argi eta garbi.
- ♣ Kontratataren edo hornitzailearen izena.
- ♣ Faktura noizkoa den.
- ♣ Hornidura/zerbitzua sortzen duen jarduera.
- ♣ Horniduraren edo zerbitzuaren deskripzioa.

Dagokion federazioari ordaintzen zaizkion fitxa eta kuotak, baita epaileen gastuak, haren ziurtagiri bidez zuritu ahalko dira.

Konputagarriak ez diren gastuen kasuan, zerrendatu egingo dira, eta zein gasturi dagozkion adierazi.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2021/07/22

Kodea	O21/00234	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/uzt./21	CUDO	000.0055.AAAAM23B.2.wTdC	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM23B2.wTdC			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.-kodea: 2021SAGO0019

c-2 Honako hauen ordainagiriak, fakturarik sorrarazten ez badute: arbitrajeen eta epailen gastuenak, federazio gastuenak, eskudirutan emandako sarietak, dieta edo partaidetza kuotengatik talde eta kirolari amateurrei egindako ordainketenak.

Ordainagiri horiek datu hauek jaso behar dituzte:

- ♣ Kirolarien izenak (izen-abizenak eta NAN) edo klubaren izena.
- ♣ Gastuaren zenbatekoa
- ♣ Kontzeptuaren deskripzioa.
- ♣ Ordainketa egiten duen entitatearen deskripzioa (diru laguntzaren onuraduna) eta noiz eman den.

d) Entitateak denboraldian izan dituen laguntzen eta diru laguntzen aitorpena.

Memorian aipatutako datuak behar den moduan egiaztatzen ez badira, ez dira kontuan hartuko eskaera baloratzean. Kasu guztietan, konputagarria den gastuaren %100 zuritu beharko da.

SEIGARRENA: Onuradunei 10 egun balioduneko epea ematea, onartu dutela adierazi dezaten. Epe hori jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasiko da eta besterik adierazten ez bada, ulertuko da inplizituki onartu dutela.”

9.- HEZKUNTZA ETA ENPLEGU BATZORDEA

a) Arrasateko enpresentzako laguntzak 2021: Romu & Alaitz Consulting SLren dirulaguntza eskaera ebaztea (2021LDIR0003)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Hezkuntza eta Enplegu Batzordeburuaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Arrasateko Enpresentzako Laguntzak 2021 deialdiaren baitan, 2021eko uztailaren 13an **ROMU & ALAITZ CONSULTING SL** enpresak diru laguntza eskaera aurkeztu du, enpresa sortu berriari hasierako gastuei aurre egiten laguntzeko, sortutako bi lanpostu egonkorretan eta eginiko 10.156,91€ko hasierako inbertsioan oinarrituta. Aipatutako lanpostuak Alaitz Osa Arabaolazak eta Romualdo Arteché Aranok betetzen dituzte, biak aldi berean langile eta enpresako bazkideak direlarik. Enpresa sortu berria da, Arrasateko Osinaga kaleko 2 zenbakian kokatuta dago, eta “Kruce” izen komertziala erabiltzen du.

Eskaera deialdiak ezartzen dituen betekizunekin alderatuta, eta hartara enplegu teknikariak eginiko txostenean oinarrituta, Tokiko Gobernu Batzarrari ondokoa proposatzen zaio:

- **LEHENENA.-** Arrasateko Enpresentzako Laguntzak 2021 deialdiaren bidez **ROMU & ALAITZ CONSULTING SL** – ri, **5.330,00 €ko dirulaguntza aitortzea** (lehenengo

TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2021/07/22

Kodea	O21/00234	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/uzt./21	CUDO	000.0055.AAAAM23B.2.wTdC	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM23B2.wTdC			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				